



## AKTEA/03

### BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA (2026-03-16)

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2026-03-16 (Aslehena)
<b>Lekua:</b>	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
<b>Hasiera-ordua:</b>	11:00
<b>Amaiera-ordua:</b>	11:12
<b>Alkate-Presidentea:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA
<b>Batzordekideak:</b>	ETXEARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER CARUEZO UGALDE MAITE
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	
<b>Idazkaria:</b>	BAREÑO DUÑABEITIA GOTZON



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

#### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340

Datea: 18/03/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2026-03-10 TGB (02)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Zehapen espedientea iraungitzea onartzea.
- 4.- Arresi 34 - Fatxada eta estruktura konpontzeko obra onartzea.
- 5.- Arostegi kalea 20ko lokala etxebizitza bihurtzeko obra baimen eskaria onartzea.
- 6.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 7.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaidza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2026-03-10 TGB (02)

Bertaratutako batzarkideek 2026ko martxoaren 10eko 02/2026 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

### 3.- ZEHAPEN ESPEDIENTEA IRAUNGITZEA ONARTZEA.



## Xedea

Cafuné dastalekuaren aurkako zehapen espedientea iraungitzea.

## Aurrekariak

Lehenengoa.- 2024ko urriaren 9an, Lope Díaz de Haroko auzokide batek Cafuné dastalekuaren ordutegia zein terraza baimenaren inguruan informatzeko eskatu zuen, horiek betetzen ez zirelakoan.

Bigarrena.- 2025eko apirilaren 30ean, 2025 1833 Alkatetza Dekretuz zehapen espedienteari hasiera eman zitzaion.

## Argudioak

Lehenengoa.- Urriaren 1ko 39/2015 Legearen 21. artikulua arabera:

**“Artículo 21. Obligación de resolver.**

1. La Administración está obligada a dictar resolución expresa y a notificarla en todos los procedimientos cualquiera que sea su forma de iniciación. En los casos de prescripción, renuncia del derecho, caducidad del procedimiento o desistimiento de la solicitud, así como de desaparición sobrevenida del objeto del procedimiento, la resolución consistirá en la declaración de la circunstancia que concurra en cada caso, con indicación de los hechos producidos y las normas aplicables. Se exceptúan de la obligación a que se refiere el párrafo primero, los supuestos de terminación del procedimiento por pacto o convenio, así como los procedimientos relativos al ejercicio de derechos sometidos únicamente al deber de declaración responsable o comunicación a la Administración.

2. El plazo máximo en el que debe notificarse la resolución expresa será el fijado por la norma reguladora del correspondiente procedimiento. Este plazo no podrá exceder de seis meses salvo que una norma con rango de Ley establezca uno mayor o así venga previsto en el Derecho de la Unión Europea.

3. Cuando las normas reguladoras de los procedimientos no fijen el plazo máximo, éste será de tres meses. Este plazo y los previstos en el apartado anterior se contarán:

a) En los procedimientos iniciados de oficio, desde la fecha del acuerdo de iniciación.

b) En los iniciados a solicitud del interesado, desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en el registro electrónico de la Administración u Organismo competente para su tramitación.”



Era berean, espedientea zabaltzeko erabakian honakoa adierazi zen:

**“SEIGARRENA:** *Interesdunari jakinaraztea ebazpen adierazlea emateko gehienezko epea 6 hilekoa dela, zehapen espedientea hasteko erabakia hartu den egunetik zenbatzen hasita.*

*Hala ere, prozedura interesdunari egotzi dakioken arazoiren bategatik gelditzen bada ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa ere, gelditu egingo da. Jakinaraziko zaio, era berean, ebazpena emateko gehienezko epea igaro eta ebazpen adierazlea jakinarazi ez badu, prozedura iraungi egingo dela 39/2015 Legeko 25. artikuluan administrazio-isiltasunari buruz dioenaren arabera. Kasu horretan, iraungitzea adierazten duten ebazpenak jarduketak artxibatzeke aginduko du, eta 95. artikuluan xedatutako ondorioak izango ditu; hau da, prozedura iraungitzeak ez du beste barik norbanakoen edo administrazioaren akzioen preskripzioa ekarriko, ezta preskripzio-epearen zenbaketa geldituko.”*

Hori horrela, kontuan izanda ebazpena emateko epea 6 hilabetekoa dela, eta zehapen espedientea 2025eko apirilaren 30ean zabaldu zela, urriaren 30ean igaro zen ebazpen espresua emateko gehienezko epea.

**Bigarrena.-** Eskumenari dagokionez, hertsatze isunak ezartzeko eskumena Alkatearena da, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituenaren 21-1-s) artikuluari jarraiki. Hala ere, 2026ko otsailaren 26ko 2026 1131 Alkatetza Dekretuz eskumen hau Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu ditzaien.

### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Cafuné dastalekuaren aurkako zehapen espedientea iraungitzea eta prozedura horri dagozkion jarduketak artxibatzea.

**BIGARRENA.-** Interesdunari ohartaraztea preskripzio epea agortu ez bada beste espediente bat zabaldu ahalko dela.



HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, legean egokitzen dagozkion errekurtsoak tarteratzeko aukera emanez.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea hurrengoko Osoko Bilkuran.

#### **4.- ARRESI 34 - FATXADA ETA ESTRUKTURA KONPONTZEKO OBRA ONARTZEA.**

##### **Xedea**

Bermeoko Arresi kaleko 34an obra lizentzia eskaria irisgarritasuna hobetu eta egitura sendotzeko.

##### **Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2025ko maiatzaren 9an, Jasone Patiño Valtierra andreak, Bermeoko Arresi kaleko 34 jabeakideen erkidegoaren izenean, higiezinean oztopo arkitektonikoak kentzeko eta egitura sendotzeko obra lizentzia-eskaera aurkeztu zuen.

CLAVE estudio de arquitectura estudioak egindako proiektua aurkeztu zuen, eta dagokion Elkargo Ofizialarengatik bisatuta dago (2025-01-28).

Udal arkitektoaren txostenaren arabera, proiektuak udal izapideetarako beharrezkoak diren dokumentu guztiak biltzen ditu:

- Deskripzio-, eraikuntza- eta justifikazio-memoria
- Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzko azterlana
- Hondakinen kudeaketaren azterketa (1.500,00 €)
- Kalitatea kontrolatzeko plana
- Baldintzen agiria
- Aurrekontua
- Erabilera eta mantentze-lanen eskuliburua
- Planoak

Obraren kontrata-aurrekontua 50.025,95 eurokoa da. Datu horretatik ondorioztatzen da exekuzio materialaren aurrekontua 42.038,61 eurokoa izango dela (40.147,86 euro hondakinen kudeaketa partida, segurtasun eta

5



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340  
Data: 18/03/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



CSV: 07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

osasunerako partida eta kalitate kontrolerako partida kenduta).

Bigarrena.- 2026ko otsailaren 9an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- Fidantzaren gordailu adierazpena espedientean ageri da.

Laugarrena.- 2026ko martxoaren 11n, urigintza teknikariak txostena eta erabaki proposamena egin zituen.

### Argudioak

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2025eko maiatzaren 9an aurkeztu zen proiektua, eta 2026ko otsailaren 9an egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

*“Proiektuaren helburua da, batetik, eraikineko oztopo arkitektonikoak kentzea eta, bestetik, fatxada nagusiko lehen solairuko forjatuaren hegalkinaren egitura sendotzea.*

*Horretarako, igogailura sartzeko portaleko eskailera-buruaren eta kalearen artean dauden mailak kenduko dira (2 maila sarrerako atean eta hiru maila atariaren barruan), eta horien ordezkariak jarriko dira. Arrapaletako bat kanpoan egongo da, sarrerako atearen atarian, eta beste arrapala barrualdean egongo da, portale barruan.*

*Atariko zolata berria egin ahal izateko lur trinkoak induskatzea aurreikusten da. Ondoren, 10 cm-ko hormigoi armatuko zolata egingo da.*

*Aipatutako obrak direla eta, portalera sartzeko atea aldatuko da, eta maila bat handituko solairutik lehenengo solairura doan eskailera. Atariko zoladura berria, eskailera-baranda berria eta eskudel berriak jarriko dira arrapalaren bi aldeetan.*

*Egitura sendotzeko obrei dagokienez, Arresi kaleko fatxadaren hegal-irteeraren azpian 2 mentsula jartzea aurreikusten da, lehen solairuko forjatua deformatu ez dadin eta etxebizitzaren barruan pitzadurak ager ez daitezken. Kartoi-igeltsu tradosatuz babestutako profil eta hagun metalikoak erabiliko dira.”*

Bigarrena.- 2026ko otsailaren 9an, gainera, udal arkitektoak honako



proposamena egin zuen:

### **“Proposamena**

*Lizentzia eskatzen den obrak ez ditu eraikuntza-parametroak aldatzen, eta irisgarritasuna hobetzea eta eraikinaren egitura sendotzea ditu helburu.*

*Proiektua bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin. Nahiz eta gutxieneko erabilgarritasun-parametroak betetzen ez diren aldez aurretik dauden eraikuntzako baldintzak direla eta, parametro horietara gehien hurbiltzen direnak betetzen dira, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez dago eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko.*

*Aipatutako gutxieneko erabilgarritasun-parametroak betetzen ez direnez, **espedientea Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari helaraziko zaio, jakinaren gainean egon dadin.***

*Nolanahi ere, ondorengo baldintzak eduki beharko dira kontuan:*

- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du.*
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.*
- Lanak egiteko okupazio publikoa beharko balitz, eskatu egin beharko da, kokapena eta azalera Udalarekin adostuz. Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.*
- Bermeoko HAPOaren IV. Tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.*



- *Eraikuntzaren Kode Teknikoari dagokionez (EKT), Eraikinean egingo diren lanetan, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarrizko dokumentuak. (DB-SUA, DB-SI, DB-SE, DB-HE, DB-HR eta DB-HS).*
- *68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen bete beharko da.*
- *Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.*
- *Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta hiru (3) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.*

*Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Obren hasiera baino lehen eskatutako fidantzak aurkeztu beharko dira Udalean.*

- *Obrak dirauen bitartean, lizentziaren kopia bat eskuragarri eta ikusgai egongo da obran bertan.*
- *Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, bai eta obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari alde aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.*
- *Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.*

*Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea da, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA0015A07C00Y1D2W2B8PZ1

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340

Data: 18/03/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- *Lizentziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.*
- *Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.*
- *Indusketa egiterakoan aztarna arkeologikorik agertuz gero, indusketa gelditu eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuari abisatu beharko zaio, egoki deritzon neurriak har ditzan.*
- *Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxienezko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.*

*Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira:*

- *Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoriarekin.*

*Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) argazki aurkeztuko dira gutxienez.*

- *Kalitate kontrolaren ziurtagiria.*
- *112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakinak eta – materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.*

*1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu*



*direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta – materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen- organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.*

*2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:*

*a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.*

*b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.*

*c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraipen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.*

**Hirugarrena.-** Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera



horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko maiatzaren 9an egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak beharrezko dokumentazio guztia jasotzen du.

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko otsailaren 9an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, martxoaren 11n.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikulua arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261417340
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58		Datea: 18/03/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



CSV: 07EA0015A07C00Y1D2W2B8PZ21

211.1. artikuluaaren esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia emotean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emongo den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikulua lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrek, gehienez ere, 3 hilabeteko epea izango dute.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exeuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez egon daitezke etenda interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikuluaaren arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261417340
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58		Datea: 18/03/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia eman baino lehen honako fidantza hau aurkeztu beharko du udalean:

### 1.- Hondakinen kudeaketa

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (1.500,00 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispén- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza 1.800,00 eurokoa izango da.

Aurrekarietan adierazten den legez, 1.800 euroko fidantzaren gordailu adierazpena espedientean ageri da.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025ko maiatzaren 9an, Jasone Patiño Valtierra andreak, Bermeoko Arresi kaleko 34 jabeakideen erkidegoaren izenean, higiezinean oztopo arkitektonikoak kentzeko eta egitura sendotzeko aurkeztutako obra lizentzia eskaera **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituenak. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du.



- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Lanak egiteko okupazio publikoa beharko balitz, eskatu egin beharko da, kokapena eta azalera Udalarekin adostuz. Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.
- Bermeoko HAPOaren IV. Tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.
- Eraikuntzaren Kode Teknikoari dagokionez (EKT), Eraikinean egingo diren lanetan, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarritzko dokumentuak. (DB-SUA, DB-SI, DB-SE, DB-HE, DB-HR eta DB-HS).
- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen bete beharko da.
- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.
- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta hiru (3) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.

Obren hasiera eta amaiera Udalarari jakinarazi beharko zaizkio. Obren hasiera baino lehen eskatutako fidantzak aurkeztu beharko dira Udalean.

- Obrak dirauen bitartean, lizentziaren kopia bat eskuragarri eta ikusgai egongo da obran bertan.
- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, bai eta obretan sortzen diren



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340  
Data: 18/03/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalarari aldeztu aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.

- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarritz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.

Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea da, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Lizentziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.
- Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen arduraren izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.
- Indusketa egiterakoan aztarna arkeologikorik agertuz gero, indusketa gelditu eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuari abisatu beharko zaio, egoki deritzon neurriak har ditzan.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legearen oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxienezko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den,



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261417340
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58		Datea: 18/03/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



CSV: 07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoriarekin.

Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) argazki aurkeztuko dira gutxienez.

- Kalitate kontrolaren ziurtagiria.
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakinak eta – materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta – materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta



Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340
Datea: 18/03/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea: Erregistro nagusia



CSV: 07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

eraiſpen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitopena.

HIRUGARRENA.- Obraren kontrata-aurrekontua 50.025,95 eurokoa da. Datu horretatik ondorioztatzen da exekuzio materialaren aurrekontua 42.038,61 eurokoa izango dela (40.147,86 euro hondakinen kudeaketa partida, segurtasun eta osasunerako partida eta kalitate kontroleko partida kenduta).

LAUGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun eksklusibopean.

BOSGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

SEIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsuok adieraziz.

## **5.- AROSTEGI KALEA 20KO LOKALA ETXEBIZITZA BIHURTZEKO OBRA BAIMEN ESKARIA ONARTZEA.**

### **Xedea**

Arostegi kalea 20ko lokala etxebizitzara egokitzeko eskaria.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2022ko azaroaren 29an, Maialen Guergue Diaz de Cerio andreak obra baimena eskatu zuen Arostegi kaleko 20an dagoen beheko lokalean etxebizitzara egokitzeko lanak egiteko, eta obra baimena izapidetzeko BAU arkitekto taldeak eginiko proiektua aurkeztu zuen.

Proiektua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe aurkeztu zen, hala ere, proiektuan bertan zegoen Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

Bigarrena.- 2025eko otsailaren 11n, Maialen Guergue Diaz de Cerio andreak

17



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0015A07C00Y1D2W2B8PZ21

#### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340

Data: 18/03/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



CSV: 07EA0015A07C00Y1D2W2B8PZ21

obra baimena eskatu zuen Arostegi kaleko 20an dagoen beheko lokalean etxebizitzara egokitzeko lanak egiteko, eta obra baimena izapidetzeko BAU arkitekto taldeak eginiko proiektu bisatua aurkeztu zuen.

Udal arkitektoaren esanetan, proiektuak udal izapideetarako beharrezkoak diren dokumentu guztiak biltzen ditu:

- Deskripzio-, eraikuntza- eta justifikazio-memoria
- Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzko azterlana
- Hondakinen kudeaketaren azterketa (600,00 €)
- Kalitatea kontrolatzeko plana
- Baldintzen agiria
- Aurrekontua
- Erabilera eta mantentze-lanen eskuliburua
- Planoak

Obraren exekuzio materialaren aurrekontua 46.990,00 eurokoa da (45.070,00 euro hondakinen kudeaketa partida, segurtasun eta osasunerako partida eta kalitate kontroleko partida kenduta).

Hirugarrena.- 2026ko otsailaren 17an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Laugarrena.- Fidantzaren ordainagiria espedientean dago.

Bosgarrena.- 2026ko martxoaren 11n, urigintza teknikariak txostena eta erabaki proposamena egin zituen.

## Argudioak

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2025eko otsailaren 11n aurkeztu zen proiektua, eta 2026ko otsailaren 17an egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

*“Lehenengoa.- Eraikina Hiri-antolamenduko plan orokorrak (HAPO) A.0 bezala mugatutako Lurralde Arean dago, hiri lurzoru finkatuan. Eraikin honi Plan Orokorrak R.1 alde zaharreko egoitza erabilera kalifikazio xehatua ezartzen dio.*

*Jarduketak ez du eraginik eraikinaren eraikigarritasunean edo bolumenean,*



azken finean, erabilera aldatzean datzalako.

Bigarrena.- Bermeoko HAPOk bere 3.2.13 artikuluan R.1 erabilera duten eraikinetako beheko plantetan baimendutako erabilera bezala definitzen du, etxebizitza erabilera.”

Bigarrena.- 2026ko otsailaren 17an, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

### “Proposamena

*Lizentzia eskatzen den obrak ez ditu eraikuntza-parametroak aldatzen.*

*Proiektua bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez dago eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko. Nolanahi ere, ondorengo baldintzak eduki beharko dira kontuan:*

- *112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela, obra baimenak ez du baliorik izango.*
- *Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.*
- *Lanak egiteko okupazio publikoa beharko balitz, eskatu egin beharko da, kokapena eta azalera Udalarekin adostuz. Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.*
- *Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie, Udal Zerbitzu Teknikoei.*
- *Bermeoko HAPOaren 3.2.5 artikuluan zehaztu bezala, etxebizitzaren diseinua, 2009ko otsailaren 12ko aginduan oinarrituko da, Etxebizitza eta*



*Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzak onartzen dituena.*

- Lanek kanpoaldeko itxuran edo fatxadaren eraginik izango balute, Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak ezarritako arauetara egokitu beharko da, hala, leihoak eraikineko bestelakoak izango dira, material, kolore eta diseinu berekoak eta eraikineko fatxadaren diseinuarekin bat egin beharko dute. Leihoetan pertsianak jarri nahi badira, eraikineko beste leihoetako pertsianen diseinu eta kolore berekoak izan beharko dira.*
- Ekialdeko fatxadaren leihoek, barrualdea iluntzeko leiho-ateak dituzte. Fatxada horretako leihoetan ezin izango da pertsianarik jarri, leiho-ateak jarriko dira, fatxadako bestelakoak.*
- Hornidura ezberdinen kontagailuen irakurketa egiteko ez da etxebizitza barrura sartu beharrik izango. Kaletik zuzenean edo eraikinaren kontagailuen armairuan kokatu beharko dira.*
- Sukaldeko kanpaia ezin izango da aireztapen sistemara konektatu, etxebizitzak ez badu estalkira ke irteerarik, filtro sistemak erabili beharko dira.*
- Eraikuntzaren Kode Teknikoari dagokionez (EKT), Eraikinean egingo diren lanetan, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarritzko dokumentuak. (DB-SUA, DB-SI, DB-HE eta DB-HS).*
- Esekilekua birplanteatuko da, hala, gutxienez 2 metro karratu izan beharko ditu.*
- Etxebizitzak 5 metroko luzerako aria izango du esekilekuan.*
- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.*
- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta hiru (3)*



**Sinadurea eta data**



*hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.*

*Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Obren hasiera baino lehen eskatutako fidantzak aurkeztu beharko dira Udalean.*

- Obrak dirauen bitartean, lizentziaren kopia bat eskuragarri eta ikusgai egongo da obran bertan.*
- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, bai eta obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari alde aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.*
- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.*

*Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea da, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.*

- Lizentziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.*
- Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.*
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.*



**Sinadurea eta data**



*Instalazio obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udaletxean:*

*– Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, **lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoriarekin.***

*Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) argazki aurkeztuko dira gutxienez.*

*– Kalitate kontrolaren ziurtagiria.*

*– 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.*

*1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.*

*2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:*

*a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia*



*Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.*

- b) *Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelane tarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.*
- c) *Hondakin balorizatu eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraipen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.*

*– Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkariak abalatu.*”

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko otsailaren 11 egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak beharrezko dokumentazio guztia jasotzen du.

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo



dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko otsailaren 17an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, martxoaren 11n.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikulua arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikulua esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamendurekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia emotean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emongo den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0015A07C00Y1D2W2B8PZZ1

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340  
Data: 18/03/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



CSV: 07EA0015A07C00Y1D2W2B8PZZ1

2/2006 Legeko 215. artikulua lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetetan exekutatu dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikulua arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengatik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia eman baino lehen honako fidantza hau aurkeztu beharko du udalean:

### 1.- Hondakinen kudeaketa

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (600,00 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispén- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **720,00 eurokoa** izango da.

Aurrekarietan esan den legez, 720 euroko fidantza gordailuaren adierazpena espedientean ageri da.



## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko otsailaren 11n, M.G.D.C andreak Arostegi kaleko 20an dagoen beheko lokalean etxebizitzara egokitzeko lanak egiteko aurkeztutako obra lizentzia eskaera **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

- 112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispentxondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela, obra baimenak ez du baliorik izango.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Lanak egiteko okupazio publikoa beharko balitz, eskatu egin beharko da, kokapena eta azalera Udalarekin adostuz. Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.
- Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie, Udal Zerbitzu Teknikoei.
- Bermeoko HAPOaren 3.2.5 artikuluan zehaztu bezala, etxebizitzaren diseinua, 2009ko otsailaren 12ko aginduan oinarrituko da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzak onartzen dituena.
- Lanek kanpoaldeko itxuran edo fatxadaren eraginik izango balute, Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak ezarritako arauetara egokitu beharko da, hala, leihoak eraikineko bestelakoak izango dira, material, kolore eta diseinu berekoak eta eraikineko fatxadaren

26



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0015A07C00Y1D2W2B8PZ21

### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340

Data: 18/03/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



CSV: 07EA0015A07C00Y1D2W2B8PZ21

diseinuarekin bat egin beharko dute. Leihoetan pertsianak jarri nahi badira, eraikineko beste leihoetako pertsianen diseinu eta kolore berekoak izan beharko dira.

- Ekialdeko fatxadan leihoek, barrualdea iluntzeko leiho-ateak dituzte. Fatxada horretako leihoetan ezin izango da pertsianarik jarri, leiho-ateak jarriko dira, fatxadako bestelakoak.
- Hornidura ezberdinen kontagailuen irakurketa egiteko ez da etxebizitza barrura sartu beharrik izango. Kaletik zuzenean edo eraikinaren kontagailuen armairuan kokatu beharko dira.
- Sukaldeko kanpaia ezin izango da aireztapen sistemara konektatu, etxebizitzak ez badu estalkira ke irteerarik, filtro sistemak erabili beharko dira.
- Eraikuntzaren Kode Teknikoari dagokionez (EKT), Eraikinean egingo diren lanetan, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarrizko dokumentuak. (DB-SUA, DB-SI, DB-HE eta DB-HS).
- Esekilekua birplanteatuko da, hala, gutxienez 2 metro karratu izan beharko ditu.
- Etxebizitzak 5 metroko luzerako aria izango du esekilekuan.
- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.
- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta hiru (3) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.

Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Obren hasiera baino lehen eskatutako fidantzak aurkeztu beharko dira Udalean.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026  
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU  
 ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340  
 Datea: 18/03/2026  
 Lekua: Bermeon  
 Erregistro unidatea:  
 Erregistro nagusia



CSV: 07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

- Obrak dirauen bitartean, lizentziaren kopia bat eskuragarri eta ikusgai egongo da obran bertan.
- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, bai eta obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari alde aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.
- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.

Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea da, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Lizentziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.
- Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen arduraren izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Instalazio obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udaletxean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0015A07C00Y1D2W2B8PZ21

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340
Datea: 18/03/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



CSV: 07EA0015A07C00Y1D2W2B8PZ21

dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, **lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea**, sortu diren aldaketen memoriarekin.

Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) argazki aurkeztuko dira gutxienez.

- Kalitate kontrolaren ziurtagiria.
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.
- b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340  
Data: 18/03/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



CSV: 07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

- c) Hondakin balorizatuena eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispin-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkariak abalatu.

HIRUGARRENA.- Obraren exekuzio materialaren aurrekontua 46.990,00 eurokoa da (45.070,00 euro hondakinen kudeaketa partida, segurtasun eta osasunerako partida eta kalitate kontrolerako partida kenduta).

LAUGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun eksklusibopean.

BOSGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

SEIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributatuak likidatzeko.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekursoak adieraziz.

## 6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.


Ez da ezer adierazi.

## 7.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.



Orrri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0015A07C00Y1D2W2B8P2Z1

**Sinatua eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 18/03/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 18/03/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 18/03/2026 18:07:58

DOCUMENTO: 20261417340

Fecha: 18/03/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

